

LOS DATOS

► **Contenidos.** 101 pinturas: 80 de la colección de San Telmo, 20 de los depósitos del Museo del Prado y una cedida por el Museo Bellas Artes de Bilbao.  
► **Sala Zuloaga.** 9 obras y el busto del artista realizado por el escultor Julio Beobide.  
► **Sala Central.** Recorrido cronológico del siglo XV a 1925, por El Greco, Rubens, Guido Reni, Alonso Cano, Fortuny, Sorolla, Olasagasti, Zubiaurre...  
► **Sala Ortiz Echagüe.** 7 obras y 'Mujeres de Tafilalet', en préstamo por el BBAA de Valencia.

Obra invitada

► **'Balneario La Perla del Océano', de Ramón Cortázar (1910).** Acuarela. Hasta el 24 de mayo.

para un monográfico en el Kunsthalle de Múnich.

Además, se ha estrenado un espacio específico a obras invitadas con la acuarela 'Balneario La Perla del Océano' (1910), un dibujo original de 3 metros de longitud que el arquitecto Ramón Cortázar presentó como parte de su proyecto para la construcción de un palafito sobre el paseo de La Concha. Estará expuesto hasta el próximo 26 de mayo.

Entre Zuloaga y Echagüe

Como un paréntesis alrededor de la sala central ejercen los dos espacios que abren y cierran el recorrido: la sala Zuloaga y la sala Ortiz Echagüe, dedicadas cada una en exclusiva a ellos. Tras la primera, continúa el paseo frente a «algunos de los mayores exponentes del retrato de las cortes»: ese 'Felipe III', de Rodrigo de Villandrando; y el 'Sebastián, rey de Portugal', de Sánchez Coello.

Retratos que se ubican ahora en contraste con la temática religiosa, donde destaca la 'Casta Susana' —cuadro «que fue atacado por alguien que le clavó una navaja en los pezones»—, y 'La Magdalena despojándose', ambas acompañadas por dos figuras en madera policromada de San Sebastián.

La iconografía religiosa permanece en estos primeros pasos por los siglos XV y XVII, entre retratos por un lado, y paisajes por otro. Hasta la llegada del Barroco y su «explosión» a cargo de Mateo Cerezo y su 'Inmaculada Concepción' (1661-62). En este punto de la muestra pasamos de las obras «más estáticas al puro movimiento» para concluir en la Sala Ortiz Echagüe, con el imponente 'Fiesta de la Cofradía de Atzara' y sus más de cuatro metros de longitud.

Como novedad, a lo largo de su visita el usuario podrá consultar a través de un código QR y en su dispositivo móvil hasta 15 de las piezas en «hiper alta resolución», desde la app Second Canvas. Cada trazo y cada detalle en su máxima expresión y en versión digitalizada.

# 'Bi anai' eleberriaren edizio eguneratua 1.000 aldaketatik gorarekin


**Bernardo Atxagak 1985eko liburuari amaiera aldatu dio, plazaratu zuenarekin ez baitzen pozik geratu**

JON AGIRRE

DONOSTIA. Irrati nobela bat eginen ari zela sentitu zuen Bernardo Atxagak ideia hura hobe zela liburu baterako gordetzea. Zorionekoa da irakurlea senari kasu egin ziolako, erabaki hartatik jaino baitzen 1985ean 'Bi anai' eleberria, Asun Garikanoren ohiko laguntzarekin goitik behera berraztertu, zuzendu, doitu eta «1.000 aldaketatik gorarekin» Ereinek argitaratu duena, horietan bistakoa amaiera berria eman diola idazle asteasuarrak, aurrez plazaratu zuenarekin ez baitzegoen pozik. «Hori bai, ez dut aurreratu tuko zein den oraingo bukaera», bota du ohiko umorez.

Aurkezpenean behin baino gehiagotan onartu zuen bezala, ez da lan erraza izan Atxagarentzat, baina oso pozik azaldu zen honela liburuari «bizitza soziala» ematen zaiolako berriro. Gerora 'Obabakoak' liburuan islatu zuen basurdearen gertakaria izan zen txispa eta hartarako «lurralde bat asmatu» beharra zuela sentiarazi ziona. Hango «arnasarekin» lehen zirriborro bat idatzi zuen, «narrazio arrunta, naturista» eta Mikel Lasak egin dako kritiken aurrean ondu zuen egungo bertsioa.

1985eko lehenaz gain Uxue Razquin Erein argitaletxeko editoreak azaldu bezala 2000 urtean beste bat izan zuen eta oraingorari begira hainbat erronkari erantzun behar izan dio Atxaga eta Garikanok osatutako tandemak. Tolosarrak azpimarratu bezala «oso modu ezberdinean» gerturatu dira, «liburua amaitzean Ber-



Bernardo Atxaga, 'Bi anai' eleberriaren berrargitalpen aurkezpenean. usoz

**BI ANAI**  
BERNARDO  
ATXAGA

Estiloa: Eleberria.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 112.  
Prezioa: 17 euro.



nardo hurrengoan hasten baita pentsatzen», eta ez zen ezkutatu Atxagak: «ez da lan batere pozgarria, gorroto dut. Oso zaila da idazle batentzat aurrekoari aurre egitea, itxi duzulako eta zerbait gehitzeko ez duzulako».

Lehena euskarak hizkuntza bezala izan duen «normalizazio» prozesua eta 40 urtetako bilakera izan da. «Aldaketa sakonak dira eta idazleak oso gogo txarrez eki-

ten du». «Hala da, bai», baieztatu zuen Atxagak. Honen baitan, lexiko aldetik Atxagak erabiltzen zituen hitz batzuk eta egun «baterrean» geratu direnak albo batera utzi dituzte. «Oztopo bat dira irakurketan, irakurlearen jarduna eteten dute, 'zer da hau?' galdarazten diote», azaldu zuen Garikanok. Ildo horretan koka daitetze idazterako unean zalantza sortzen zuten hitzen eraldaketak, ohiko ala ohizko, zeinetan nagusitu dena hautatu duten.

Horretaz gain, estruktura aldetik atalen izenburuek orain zenbakien orde zela animaliak kontaktzen duen darama «irakurleari sarrera edo helduleku» bat emateko. Hala, narrazio mailan ere zenbait kontu argiago azal-

du dituzte «kontaketan erritmo biziagoa» bilatzeko. Azkenik, azaleko kontuak ere moldatu dira, ortotipografikoak esaterako. «Oso ariketa ona izan da hizkuntza nola aldatu den ikusteko».

Editoreei gorazarrea

'Bi anai' lanaren bertsio eguneratuaren aurkezpenean egiteaz gain, agerraldia editorearen figuraren gorazarrea izan zen. «Beti autore jartzen da jopuntuan eta alde guztietatik liburu baten ardura nagusia dela dirudi, baina ez da horrela. Bueltan jende askok egiten du lan eta lankidetzarik beharrezko eta handiena edizio lana egiten duen pertsonak egiten du, irakurle oso trebe eta arduratsua», defendatu zuen.

## Juan Garziak 'Moby Dick' itzuli du «urte luzeetako lanaren ondoren» Balea Zuriarentzat

J. A.

DONOSTIA. 'Moby Dick', Herman Melvilleren lan ezaguna, itzuli du Juan Garziak Balea Zuria argitaletxearentzat «urte luzeetako lanaren ondoren», atzo aurkezpenean azaldu zuten. Argitalpen honekin gainera, maiz liburuaren harira zabaldu diren gaizki-ulertu eta aurreiritziei erantzun nahi izan diete, «gazteentzako abentura-liburu fantasiatsu bat baino ez dela, liburukote aukeran luze-bihurriegi,

kontu eta orrialde mordoa soberra dituen», besteak beste. Hondarribiko Udalaren laguntza jaso du edizio hau egin ahal izateko.

Balea Zuriako kideek literaturaren klasiko handienetakoen artean kokatu zuten, «nobelarik enblematikoenetakoa» zela azpimarratuz. Hala ere, hitzaurrean itzultzaileak esaten zuen bezala, lehenik eta sakonik, poeta zen Melville. «Poeta, ez alferrik eredu zuen harako beste erraldoi hura bezala —Shakespeare—; poeta, alegia, hitzaren jatorrizko

**'MOBY DICK'**  
HERMAN MELVILLE

Itzultzailea: Juan Garzia.  
Argitaletxea: Balea Zuria.  
Orrialdeak: 612.  
Prezioa: 35 euro.



zentsutik hasita: sortzaile. Sortzaile hitzezko bikain (eledun irudimentsu) eta, biak ala biak, hitz-sortzaile itzel (irudimendun eletsu)», dio.

Bistan da zein den, betiere,

gaizki-ulertu guztion konponbidea eta, bidenabar, literaturazalearen atseginbide gozamentsua. Ekin hortxe, bada, Moby Dicki: lehen esalditik izango duzu nork eraman bidaian. Eta ez ahal zara bertan galduko», aholkatu zuten.

Agerraldia 'Moby Dick' eleberriko esaldi bat zitatuz amaitu zuten, irakurle batek baino gehiagok, beharbada, gaintetik itsu pasatuko lukeena dela iritzita, baleagintzako xehetasun tekniko buruzko digresio aspergarritzat jotako pasarte batean txertaturik baitoa: «Barealdi kobre-halako bizi bat ari zen, loto beilegi unibertsal bat irudi, gero eta zabalago hedatzen isil-isileko bere hosto baztergabeak itsasoaren gainean».